



ALKARTZEAK

LEIZ

Egon, bai, egon.

Mendi malkarrean goruntz dijoan bidexka baten ertzean eserita, zalantza aundirik gabe lasai, egon gindezken garai batean.

Gaur, orde, urduritasun ta ezinegonaren menpean, ez dezakegu egonaldirik. Ez gindezke orduan bezala, ikustearen ikustez ezertxo ere ikusi gabe, ameslari egon. Ezin, zertan ari geran ohartzeke, soro ta baso, zelai ta muno, basetxe ta erriei begira egon... Ezer berezirik oldoztu gabe, egon...

Galdu genuen, ta betiko, euskal iztegian genuen itz patxaratsu ta garrantzizkoa.

Aren orde, beste batzuek indarberrituak ditugu: kezka, larritasuna, ezinegon ta laisterka beharra, urduritasuna...

Egon ordeaz, ari ta ari, jardunean behar dugu beti. Egon ordeaz, gelditzeke ibili ta ibili behar gera, naiz ta inoiz ere garaiz ez iritxi, gelditzeke beti. Presaka, estu ta larri, gatazka bizian, zalapartaka beti.

Giroarekin bat, geroni ere zeharo aldatuak gaituzue. Ta, azkar ibili behar orrek, sortu dizkigu, zorioneko bidezabal, laisterbide, autopistak...

* * *

Presarik gabe ginanok, johan ohi ginen noizean behin, etxetik irten ta beren kabia urrunean eraldtu zuten seme-alabengana. Bitarte aundiak igaro zirelarik, amaren gonapean, lotsati, aurkitzen genituen bilobatxoak. Aiton-amonen magaleratzeko, gozokiren batzuk behar izaten genituen. Urrutian ginelarik, ezin ba maizago maitasun kartsua txastatu.

Guztia bezala, gure lurraldearen larru-azala ere, zarberritu ta lehen ez bezalako kiriotza, azaleratua du. Banakatuak ziren erri ta erriskak, alkartuak ditugu. Inor gutxik zerabizkiten bide berriekin alkartuak. Lerak baztertu, ta gurdia gehitu ziren lehenbizi. Geroago belbilak zijoazen mendi gailurreraino, ta bidezior ordeaz, zabaltxoagoekin lotuak gelditu ziren urrutieneko erriskak.

Belbilak ugaltzearekin, berebiziko ibili beharra sortu zen bidetza osoan. Gure lur-azaleko odolpidetzan, pil-pil ari ziren zaingorriak. Alaz ere, ezinean... Ta, urtetsuen zango ta eskuetan ageri diren zain urdin, lodi ta larrien antzera, sortu zitzaigun Kantauriko xingola, izpazterreko idunekoa, laisterbide zabala, autopista...

Geroago beste zintzilikarioak ditzakenarren, oraingoz behintzat izanen dugu, bizkai-lapurtarrekiko alkatzea. Ariñeketan genezake Donibane Lohitsun'etik Bilbo'ratzea...

Ori lortzeko eginak izan diren lubaki ta ebakuntza, sator zulo ta munoak ordekatzea, sakanak betelanez berditzea, ta ibai ta erri zubiz gaintzea... ez dira nolana hikoak izan.

Berari eskerrak, ikusi ahal izan ditugu ta ditzakegu, egon ordeaz, gabiltzelarik, ezezagunak genituen zenbait

toki bitxi. Ala ere, norbaitek zerrenda itsusia dela iritzi dezake.

Zenbait erri mugatu ditu. Ta gureari buruz, zorionean izan dela deritzait. Zorionean, bai!!... Naikoa dugu, barruan gelditua den txingurritegia, gehiago zabaldu gabe.

Agustinetako kaxkotik begiratzean, zartagi antza zuala, zion Sanperio'k orain berrogei ta amar bat urte. Zartagi orren ertzak goitituak izanik, ikuspegirik gabe ginela nion, orain urte bi... Alaz ere, norbaitek egazkinez ikus ahal baleza, aztarrikatua dikuske erri osoa.

Gure ibaitxo zikina zuzentzearen, ta oraindik ere erria industriagotzeko, galdu genduen Zumardi Aundia. Etxez bete ziguten Etxeberrietako zabalditxoak. Ikara-garrizko errigintzak zapaldu ditu Iztuetako lintzura, «Lagun-Artea» zenaren kirol-zelaia, Teileri-Alde, Alaberga, Galtzaraborda ta Lartzabal inguruko arnastokiak. Agustinetatik behera, Anabitarte basetxe tokia- ren bitartea...

Utzi dezaigutela, ba, besterik ezean, ta dagon-dagonean, esiaz bestaldea. Dezatela, Anabitarte'ko Ikastolan, Nixeto zanak aipatzen zuen «aire sin usar», umeen birrikak garbi ditezen, erabili gabeko aize osasuntsua. Mendiko arnasa dezatela, bigarko gizon ta emakume zintzo ta euskaldun jator izan ditezen.

Bitartean, zuek emakumeok, jarrai azoka berriekin beharrezko den dirutza lortzen; jarrai zuek gaztetxuok, txistorra kilometroka saltzen...

Jarrai gazteok lanean; ez aspertu, zurrutari ozto-poak izan ditezken kultur-asteak eraltzen. Noizbait entzuleak ugalduko diren ustean, jarrai Musikasteak ematen. Ta, berriro ere, sarrerik ez dela jakinarazi, ehenago «Bizia bizi truk» antzeztean bezala, «Aitona ta biloba» edo besteren bat antzeztean.

Ez aspertu! Txingurriak ere, beren ibil-bideak gal-tzen bai ditue, behar ainbateko ozto-poak aurkitzean...

Laisterbide zabalak urrutikoak alkartu gaituen bezala, barrukoak ere alkar errespetaturik, ikasbidean alkartu gaitzala.